

EUROPAREN MUGIKORTASUN ASTEA, 2023

EROSKETAK BIZIKLETAZ EGITEA SUSTATZEKO KANPAINA

Antolatzailea: Hondarribiko Udala eta Balazta elkarte

Kale Nagusia 20, 20280 Hondarribia

1- TESTUINGURUA

Irailaren 16tik 22ra, "European Mobility Week" edo Europako Mugikortasun astea ospatzen da. Ospakizun honek hirietatik garraiatzeko modua aldatzea bultzatu nahi du; kotxea gutxiago erabiliz eta garraio modu jasangarriagoak bultzatuz

Ospakizun hau aprobetxatuz, Hondarribiko Udalak, Herriko merkatariak eta Balaztak, Erosketak bizikletaz egitea sustatu nahi duen kanpaina bat martxan jarri dute.

2- HELBURUA

Erosketak bizikletaz egitea sustatzea.

Eguneroko erosketak egiteko kotxea erabili beharrean bizikleta erabiltzea, ekologikoa, osasungarriagoa, merkeagoa, dibertigarriagoa eta ixilagoa delako. Estresa baztertzeko laguntzen du eta humorea hobetzen duelako.

3- KAINPAINARI ATXIKITAKO SALTOKIAK

Kainpainari atxikitako saltokiek atxikipena adierazten duen karteltxo bat edukiko dute erakuslehoian.

Kanpaina, kartela duten saltokietan bakarrik egongo da indarrean.

4- GARAPENA

Irailaren 16tik 22ra bitartean kanpainan atxikitako saltokiren batera erosketak bizikletaz egiten dituen pertsona orok Birziklatu proiektutik eratorritako bigarren eskuko bizikleta baten zozketan parte hartzeko zenbaki bat bereganatuko du.

Txartel bat bereganatzeko dendariari bizikleta erakutsi beharko zaio.

Erosketa bakoitzeko zenbakidun txartela bat bereganatuko da.

5- SARIA ETA ZOZKETA

Saria Birziklatu proiektutik eratorritako bigarren eskuko bizikleta bat izango da.

Zozketa Irailaren 25ean egingo da astean zehar banatutako zenbaki guztien artean.

Saritutako zenbakia denda guztietan adieraziko da bai eta ondorengo web orrietan:

- www.balazta.org
- www.hondarribia.eus
- Amuitz elkartearen sare sozialetan

6- ERANTZUKIZUNA

Erakunde antolatzaileak ez du erantzukizunik izango halaberrez ekintza honen exekuzioaren ondorioz izandako gorabeheretan.

7- LEGERIA ETA ESKUMENA

Oinarri hauek arautzen dira espainiar legearen arabera -aldeak beharrezko jurisdikzioaren mende jartzen dira indarrean dagoen araudiaren arabera.

8- ESKURAGARRITASUNA

Oinarri hauek www.hondarribia.eus-en daude eskuragarri.

9- IRUDIEN ERABILPENA

Kanpainan zehar egindako argazkiak Hondarribiko Udalaren esku geldituko dira, eta mugikortasun jasangarriaren sustapenerako udalak dituen komunikazio-kanaletan erabili ahal izango ditu. Beti ere, irabazi asmorik gabe.

Era berean, jakinarazten da irudiak hartzea eta zabaltzea bat etorriko direla Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta lege hori garatzeko erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuarekin.

10- ONARPENA

Kanpaina honetan parte hartzeak oinarri arautzaile hauek ezinbestean onartzea dakar, eta gerta daitekeen edozein ezustekoren aurrean, antolakuntzak erabakiko du, eta ezin izango da erabaki horren aurka apelaziorik aurkeztu.

13- MERKATARIENTZAK OHARRAK

Balazta Elkarteak kanpaina irauten duen bitartean, dendariei erakusleihoetan edo dendako sarreran ezartzeko bizikletak eskainiko dizkie.

Zozketatuko den bizikleta astean zehar merkatariek adostutako denda batean agerian jarriko da.

Balaztak merkatariei udalak prestatutako eta erakusleihoetan jarri beharreko kartelak banatuko dizkie. Bai eta zozketarako boletoak.